

altza

Manu Arrueri eskerrak
eman nahi dizkiogu

a Itzako herritarrek egindako eskakizunak bere fruituak eman ditu eta Manu Arrue jesuitak, duela gutxi arte San Pablo elizan izan dugun apaizak merezitako omenezaldia jasoko du. Donostiako jaiekin bat eginaz Udalak eskaintzen duen Hiritar Merituaren Domina bereganatuko baitu.

Manu 1990. urteko udazkenean Altzara iritsi orduko hasi zen lanean, batez ere talde margina-tuenekin. Orduz geroztik, droga munduan ibili eta bergizarteratu nahi zuen jendearekin, langabetuekin eta beste zenbait giza talderekin aritu da lanean.

Manuk lan handia egin du Altzan eta hori egunero bizitzan ere islatu da, hala nola atsedeen taldeak bultzatu ditu (Kemotronxo, Adiskideak... buruan biziki dituelarik), hirugarren munduko kontuetan lanean dabilen jendea asko lagundu du...

Altza osoaren izenean esker mila eman nahi genioke Manuri, bertan egindako guztiagatik eta bere etorkizunerako hobere-na desio diogu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Orain Manuk, Bilboko auzo batean finkatu du bere bizitza eta Altzan egindako lana ikusita bere kokapen berrian egingo duen lana eredutzat hartzekoa izango dela ez dugu zalantzan jartzen.

herrera

Mendi- Zaleak mendi elkarteak aurtengo egutegia igande honetan, hilak 22, jarriko du martxan, eta hasteko, Nafarroako lurak bisitatuko dituzte.

Goizean goiz Herrera-tik atera eta Urain, Baiza, San Adrian eta Lizarragan barrena ibiliko dira.

Sporting taldeak datorren astelehenean, hilaren 23an arratsaldeko 18.00etan Herrerako futbol zelaian biltzeko deia egiten die OHOKo seiga-

rreren eta zazpigarren mailako ikasleei. Seigarren mailakoek Costa Bravan jokatu den txapelketan parte hartu ahal izango dute eta zazpigarren mailakoak Ohorezko Infantil mailan Sportingek duen ekipoan. Guztiek entrenamendu arropa eramane beharko dute.

Axisklo Ruandaren alde dirua jasotzen aritu da. Aurtengoan Axisklo Atsedeen Taldeko partaideak Gipuzkoa enparantzan dagoen ur estanketik

dirua ateratzeko aukera izan dute. Lan hau, Donostiako Belenzaleen Elkarteak egin du gehiengotan, baina beti ere Hirugarren Munduko egoera larriari laguntza eskaintzeko. Oraingoan, bertatik ateratako dirua Ruandara bidaliko da.

Bildutako diru kopurua zein ekintzetarako izango den zehaztu gabe dago. Axisklo Atsedeen Taldeko partaideak, bi astetako lana izan dute eta tarte horretan, euria eta hotza frako jasan behar izan dute.



The Swallow School
INGELES IRAKASKUNTZA

INGELES IRAKASKUNTZAN
ADITUAK

Guridi musikariaren kalea, Z/G
Tfnoa.: 21 10 28

martutene

Heldu zaigu sagardo garaia

auzoko sagardotegietan guztiok dastatzeko prest daukagu sagardoa. Gartziategi eta Lizeagak ireki dituzte upelak eta 21ean irekiko ditu bereak Barkaiztegik txotxeko sagardoa eskaintzeko.

Beraz, aste santura bitartean izango dugu aukerarik sagardo berria, bakailu tortila eta txuleta onak dastatzeko.

Barkaiztegik 200.000 sagardo litro egin ditu aurren, aurreko urteen antzerira. Txotxerako 9 upel izaten ditu eta gainerakoa berriz, beste upel batzuetan almagaztatua, botiletan sartzeko erabiltzen du.

Gartziategik 80.000 litro inguru egin ditu aurtengoan, 16 upel ditu orora. Lizeagak ere 80.000 litro sagardo egin ditu, horietatik %90a inguru botilaratuko ditu sagardotegi honek eta gainerakoa txotxean edango da.

NEREA GARMENDIA (460739)



Argazkia: Roxali Fernandez

Botilaratze prozesua ere segituan hasiko dute hiru sagardotegiok txotxeko denboraldia bukatu baino lehen alegia.

loiola

Zuhaitz taldeak asteburuko irteera antolatatu du Arandain aldera Loiolako haurrentzat. Irteera urtarrilaren azken aste buruan egingo da, hau da, hilaren 28 eta 29an eta bertan, jolasak eta mendi irteerak antolatuko dira. Informazio gehiago eta izena eman nahi duenak dei dezala honako telefono zenbakietara: 46 30 54 (Dani)

edo 45 49 50 (Txema).

Danborradak izango ditugu jaun eta jabe Loiolan urtero eta auzo guztietan bezala San Sebastian egunean. Danborrada nagusia, Loiolatarrak elkarteak ateratzen duena, gauerdiko hamabietan aterako da eta hiru ordu luzez arituko da kaleak girotzen. Aipatzekoa

da Loiolako gazteen danborradak aurren bere hirugarren urtea beteko duela eta arratsalde osoz arituko dira jotzen.

Afariak ere nonahi antolatu dira. Loiolatarrak elkarteak 6.500 pezetako menua prestatu du eta Hontza elkarteak berriz, 3.000 pezetakoa.

HARKAITZ ARANBURU (TFNOA.: 465056)

AINHOA taberna

• Pintxoak eta kazuelitak
Sarroeta 90, MARTUTENE



HONTZA ELKARTEA

Eliza kalea, 5 - Tfnoa.: 46 82 37
Loiola Donostia

Donosti bat bakarra munduan...

ALAI TABERNA

Tranbia kalea - Alai taldea
Tfnoa.: 46 88 61

ESTANCO jatetxea

Aste egunetan menuak eta asteburuetan bazkari ta afariak

Martutene Okendotegi z/g
Tfnoa.: 45 23 42

ARANTZA HERBORISTERIA

Naturopata eta masailaria

Plazaburu kalea, 8 • Tfnoa.: 46 67 96